

## **KONTROL MOZIOA**

### **Udala partaidea den sozietateetan erabiltzen diren hizkuntza-irizpideak direla-eta**

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2015eko abenduaren 14an Pertsonentzako Zerbitzuetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Hainbat arrazoi tarteko dagoeneko aski ezaguna denez, TABAKALERAn Urtezaharreko gau-festa antolatu da. Festarako promozioa nagusiki interneten bidez egin da, gaur egun gazteek erabiltzen duten hedabide nagusia izanik. Gazteen artean euskararen ezagutza indizeak, beste adin batzuetakoekin alderatuta, askoz ere altuagoak diren arren, festa antolatu duen enpresak erabili dituen hizkuntza irizpideak ulertezinak suertatu dira (adibidez kartel digitalean ingelesa hutsa nagusi), baita Udal Gobernuarentzat ere, batzordean bertan agerian geratu zen bezala.

Euskarako zinegotzi ordezkariak berak ere batzordean azaldu bezala, ñabardurak ñabardura, CICC SA delakoaren partaide diren hiru erakunde publikoek (Udala bera, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza) euskara normalizatzeko planak dituzte eta plan horiek antzeko hizkuntza-irizpideak barnebiltzen dituzte. Edonola, Donostiako Udalak “Donostiako Euskararen Plan Orokorra” delakoaren bidez indarrean dituenak betetzeko ardura du. Hala ere, emandako azalpenen arabera, Tabakaleran idatzizko oharren gaineko jarraipena egin arren, informazio digitalaren bidez egiten denari ez zaio jarraipen maila bera eman, inondik inora.

Tabakalerako festa honetan gertatutakoa kezkarria da, gazteen aisialdiaren inguruan kokatua baitago, eta, hain zuzen ere, adituek

horrelakoak aipatzen dituzte erabilera bultzatzeko une egokienak bezala. Kasu honetan, euskararen erabilera bultzatu beharrean, ingelesarena bultzatu da.

Eta hori baino kezagarriagoa da Udal Gobernuak arlo digitalari emaniko garrantzi eskasa, behin eta berriro irizpideok betetzeko prestutasuna eta arestian aipatutako plana hertsiki betetzeko asmoa agindu arren.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

### **KONTROL MOZIOA:**

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari berma dezala, euskararen erabilera normalizatzeko bidean, aurrera-urratsak emateari begira, eta indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5. Plangintzaldia (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen norabidea kontuan hartuz, Udalak parte hartzen duen sozietateetan ere Udalak bereak dituen hizkuntza-irizpideak sozietate horietan ezartzeko prozedurak eta kudeaketak egitea.

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari dagozkion neurriak har ditzala, euskararen erabilera normalizatzeko bidean, aurrera-urratsak emateari begira, eta indarrean dagoen “Donostiako Udal Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko 5, Plangintzaldia (2013-2017)” delakoaren arau eta jarraibideen norabidea eremu digitalean ere betearazteko.

Donostian, 2015eko abenduaren 17an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia